

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

#### 2019ko ekitaldian kreditu-transferentzia bidez eta konpromiso-kreditua sortuz aurrekontu aldakuntzak egiteko zenbait dosierren behin-behineko onspena

2019ko martxoaren 22an egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udalbatzak behin-behineko onspena eman zien 2019ko ekitaldirako luzatutako aurrekontuan kreditu-aldaketak egiteko dossier hauei:

– 30.000,00 euroko kreditu-transferentzia 01.60 2381 481.20 aurrekontu-aplikaziora – “LGTBI behatokiarekiko hitzarmena” –, dirulaguntza izendun baterako.

– 90.000,00 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.60.03 2381 481.18 aurrekontu-aplikaziora – “Emakumeen Etxearekiko hitzarmena” –, dirulaguntza izendun bat handitzeko.

– 46.535,00 euroko kreditu-transferentzia 01.71 3351 480.64 aurrekontu-aplikaziora – “Korrika antolatzeke hitzarmena” –, dirulaguntza izendun baterako.

– 25.000,00 euroko kreditu-transferentzia 01.71 3351 481.23 aurrekontu-aplikaziora – “Araba Euskaraz antolatzeke hitzarmena” –, dirulaguntza izendun baterako.

Orobat, behin-behinean onetsi da konpromiso-kreditua sortzeko dossier hau:

15.20.05 4411 710.07 aurrekontu-aplikazioa – “Salburu-Zabalgane tranbia” –.

Urteak	Zenbatekoa
2020. urtea	4.763.000,00 €
2021. urtea	5.929.000,00 €
2022. urtea	6.500.000,00 €
2023. urtea	5.800.000,00 €

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Arabako lurralde historikoko Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hamabost egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onartutzat joko dira dossier horiek baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 25ean

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**